

## EAJ-PNVk Berezaon futbol zelai berria eta aire zabaleko igerilekuak eraikitzea proposatu du

- Futbol zelai berriak, Aloña Mendirako beharrezko ekipamenduarekin batera, Azkoagain zelaiaren egungo egoera txarrari irtenbidea emango lioke.
- Adin txikikoentzat eta helduentzat egokiak diren aire zabaleko igerilekuak, Oñatik udako hilabeteetarako behar duen alternatiba izango lirateke.

EAJ-PNVk proposatu du Oñatiri kirol-hiri berri bat ematea eta bertan Aloña Mendi klubak bere beharretara egokitutako zelaia eta kirol-ekipamenduak izatea. Era berean oñatiarrek udako hilabeteetan aire zabaleko igerileku irekiez gozatzeko aukera izango lukete. Bi proposamenak, talde jeltzalearen eskaera historikoak, Korriunean kokatuko lirateke, Azkoagain eta Berezaon auzoen artean dagoen eremuan.

### **Aloña Mendiko beharren arabera instalazioak**

Oñatiko Aloña Mendi klubak hamarkada bat baino gehiago darama Azkoagaingo zelaiaren egungo egoera deitoragarria konpontzeko eskatzen. EH Bilduren gobernu taldeak emandako konponbideen ondoren, adabaki bat bestearen atzetik, alderdi jeltzaleak behin baino gehiagotan eskatu du Azkoagainen egoera bere osotasunean aztertzeko. EAJ-PNVren proposamenak bi futbol-zelai jasotzen ditu, Aloña Mendik jokatu eta entrenatu ahal izateko, baita klubaren parean dauden ekipamenduak ere: aldagelak, bainugelak, gimnasioa, bizikletentzako aparkalekua, patineteak eta hainbat ibilgailu, hiri-buserako geltoki bat...

### **Aire zabaleko igerilekuak, udako alternatiba**

Era berean, eta kirol-hiriaren zati gisa, EAJ-PNVk igerileku irekiak eraikitzea proposatu du, aire zabalean. Gaur egun, oñatiarrek igerileku estaliak eta Usako baino ez dituzte eguzkiak estutzen dituen hilabeteetarako. Adin guztietarako egokiak diren igerileku horiek jasangarriak eta ekologikoak izango lirateke: ura behar bezala erabiliko litzateke, produktu kimikoak erabiltzea saihestuko litzateke eta prozesu naturalagoak erabiliko lirateke ura garbi edukitzeko. Halaber, igerilekuak berdegunez inguratuta egongo lirateke, eta berdegune horiek paisaian integratuko lirateke, itzalgune naturalak sortuz. Igerileku berri hauek Usakoren alternatiba ere izango lirateke, azken honen izaera naturala nolabait berreskuratuz eta zainduz.

## EAJ-PNV propone construir un nuevo campo de fútbol y piscinas al aire libre en Berezaio

- El nuevo campo de fútbol, junto con el equipamiento necesario para el Aloña Mendi, daría solución al actual estado deplorable del campo Azkoagain.
- Las piscinas al aire libre, aptas para menores y adultos, serían la alternativa que necesita Oñati para los meses de verano.

EAJ-PNV propone dotar a Oñati de una nueva ciudad deportiva donde el club Aloña Mendi cuente con un campo y unos equipamientos deportivos aptos a sus necesidades, y las y los oñatiarras puedan disfrutar de unas piscinas abiertas, al aire libre, los meses de verano. Ambas propuestas, peticiones históricas del equipo jeltzale, se ubicarían en Korriunea, en el área ubicado entre los barrios de Azkoagain y Berezaio.

### **Instalaciones acordes a las necesidades de Aloña Mendi**

El club oñatiarra Aloña Mendi lleva más de una década solicitando una solución para el actual estado, deplorable, del campo de Azkoagain. Tras las soluciones dadas por el equipo de gobierno de EH Bildu, un parche tras otro, el partido jeltzale ha solicitado en más de una ocasión que se analice el estado de Azkoagain en su conjunto. La propuesta de EAJ-PNV recoge dos campos de fútbol, donde Aloña Mendi pueda jugar y entrenar, y equipamientos a la altura del club: vestuarios, baños, gimnasio, parking para bicicletas, patinetes y diferentes vehículos, una parada para el bus urbano...

### **Piscinas al aire libre, la alternativa para el verano**

Asimismo, y como parte de la ciudad deportiva, EAJ-PNV propone la construcción de piscinas abiertas, al aire libre. En la actualidad, las y los oñatiarras solo cuentan con las piscinas cubiertas y Usako para los meses en los que el sol aprieta. Estas piscinas, aptas para todas las edades, serían sostenibles y ecológicas: se haría un uso correcto del agua, se evitaría el uso de productos químicos y se utilizarían procesos más naturales para mantenerla limpia. Asimismo, las piscinas estarían rodeadas por espacios verdes que se integrarían en el paisaje, creando zonas de sombra naturales. Estas nuevas piscinas servirían también como alternativa a Usako, recuperando y preservando de algún modo, el carácter natural de este último.